Bestelako Xedapenak

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

1632

AGINDUA, 2009ko otsailaren 19koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, Aretxabaletako (Gipuzkoa) «Leizarra» Musika Eskola Pribatuari helbidea aldatzeko baimena emateko dena.

Instalazioak lekuz aldatzen dituela-eta, Aretxabaletako (Gipuzkoa) «Leizarra» Musika Eskola Pribatuaren helbidea aldatzeko baimena eskatuz ikastetxe horren erakunde titularraren ordezkariak hasarazitako espedientea ikusi da.

Espediente horri Gipuzkoako Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzak egin dizkio izapideak, indarrean dauden arauek eskatzen dituzten agiriak erantsi zaizkio eta eskumena duten erakundeek egin diote txostena.

Euskal Autonomia Erkidegoan musika-irakaskuntza espezifikoa, arautu gabea, ematen duten ikastegiak (musika-eskolak) sortzea eta jardunean jartzea arautzen dituen urriaren 27ko 289/1992 Dekretua (1993ko urtarrilaren 4ko EHAA) eta arlo honetan aplikatu daitezkeen gainontzeko legeak ikusi dira.

EBATZI DUT:

1. artikulua.– Baimena ematen zaio helbidez aldatzeko kode zenbakiz 20008261 duen Aretxabaletako (Gipuzkoa) «Leizarra» Musika Eskola Pribatuari. Oraingo helbidea: Santa Kurtz, 20-Arkupe Kultur Etxea, Aretxabaleta (Gipuzkoa).

2. artikulua.– Ikastetxeak Eraikuntzako Oinarrizko Arautegia bete beharko du (martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuak onartua), bai eta indarreko legeriak ezartzen dituen higiene, osasun, akustika, bizigarritasun, segurtasun eta irisgarritasun baldintzak ere. Ikastetxeko titularrarena izango da baldintza horiek ez betetzearen erantzukizuna.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

1632

ORDEN de 19 de febrero de 2009, del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, por la que se autoriza el cambio de domicilio a la Escuela de Música Privada «Leizarra» de Aretxabaleta (Gipuzkoa).

Examinado el expediente iniciado por el representante de la entidad titular de la Escuela de Música Privada «Leizarra» de Aretxabaleta (Gipuzkoa), en solicitud de autorización para el cambio de domicilio por traslado de las instalaciones.

Resultando que el citado expediente ha sido tramitado por la Delegación Territorial de Educación de Gipuzkoa, que se ha unido al mismo la documentación exigida por la normativa vigente y que ha sido informado por los organismos competentes en la materia.

Vistos el Decreto 289/1992, de 27 de octubre (BOPV de 4 de enero de 1993), por el que se rigen la creación y funcionamiento de los centros de enseñanza musical específica, no reglada, Escuelas de Música, en la Comunidad Autónoma de Euskadi, y demás legislación aplicable en la materia,

RESUELVO:

Artículo 1.– Se autoriza el cambio de domicilio de la Escuela de Música Privada «Leizarra», con n.º de Código 20008261, y sita en Otalora, 27, del municipio de Aretxabaleta (Gipuzkoa), que en lo sucesivo lo estará en Santa Kurtz, 20-Arkupe Kultur Etxea, del mismo municipio.

Artículo 2.– El centro deberá cumplir el Código Técnico de la Edificación, aprobado por el Real Decreto 314/2006, de 17 de marzo, así como las condiciones higiénicas, sanitarias, acústicas, de habitabilidad, de seguridad y de accesibilidad que se señalen en la legislación vigente. La responsabilidad por el incumplimiento de dichas condiciones corresponde al titular del centro.

AZKEN XEDAPENA

Agindu honen aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuari, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera, hilabeteko epean; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera, bi hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko otsailaren 19a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua,
JOSÉ ANTONIO CAMPOS GRANADOS.

DISPOSICIÓN FINAL

Contra la presente Orden podrá interponerse recurso potestativo de reposición ante el Consejero de Educación, Universidades e Investigación, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, o recurso contencioso-administrativo ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Vitoria-Gasteiz, a 19 de febrero de 2009.

El Consejero de Educación, Universidades e Investigación,
JOSÉ ANTONIO CAMPOS GRANADOS.